

GETXOKO ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA: BERRIKUNTZA ETA TURISMO-JARDUERA BERMATUAK. 2025. URTEA

2. ildo. Jarduera turistiko bermatuak abian jartzeko laguntzak, profesionaleri eta enpresa turistikoeri zuzendutakoak.

<p>Helburua</p>	<p>Helburua da enpresa-sarea indartzen laguntzea, enpresen nahiz profesionalen arteko harremana eta lankidetzaren indartzea. Asmoa da kolaborazio horren ondorioz enpresa turistikoek zerbitzu, jarduera eta/edo produktu turistiko berritzaileak, erregularrak eta kalitatezkoak garatzea eta abian jartzea, eta haien merkaturatzeak (zuzenean eta zeharka) laguntzea Getxoko enpresa turistikoen multzoari.</p>
<p>Onuradunak</p>	<p>Pertsona eta erakunde onuradunek, zeinak 3. artikuluan adierazi baitira, honako betekizun hau bete behar dute: Turismo-izaerako enpresak edo profesionalak izango dira, euren turismoko jarduera nagusia Getxo udalerrian egiten dutenak, modu erregularrean, eta/edo Getxon turismo-jarduera bat egiten dutenak, bakarra/berezia dena eta destinoa mesedetzen duena.</p> <p>Deialdi honen bitartez lortu nahi den alderdietako bat da turismo-izaerako enpresen eta profesionalen arteko lankidetzaren indartzea. Horrenbestez, baliteke zenbait enpresa eta/edo profesional lankidetzaren aritzea, osoagoa den jardueren proposamena aurkezte aldera. Alabaina, enpresa edo profesional bakoitzak bere eskaera aurkeztu beharko du banaka; hala, eskatzaile bakoitzak bere gain hartuko ditu jarduera propioen erantzukizuna.</p> <p>Honako hauek dira deialdi honetan jasotako laguntzak eskatu ahalko dituztenak: norberaren konturako langileak edo autonomoak eta profesionalak; nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak; eta legez eratu diren mikroenpresak eta enpresa txikiak.</p> <p>Baztertuta geratuko dira elkarteak, klubak, fundazioak, eta irabazteko asmorik gabeko erakundeak oro har, lankidetzaren aritzen diren langile autonomoak, ondare-sozietateak eta sektore publikoko erakundeak.</p>



***Diruz lagundu daitezkeen
jarduerak***

Getxon garatzen diren turismo- nahiz aisia-jarduera erregularrak, udalerriko turistek eta bisitariak berehala kontsumitu ditzaketenak, aldeztu erreserbarik egin gabe edo egiteko gutxieneko pertsona-taldea behar izan gabe. Batera ez doazen hainbat pertsonak banaka kontratatu daitezkeen jarduerak izango dira, hau da, ez dira izango kontratatzen dituen pertsonaren edo taldearen neurria egindako jarduerak.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak arribideko urtean turismoa sustatzeko eta dinamizatzeko kanpainarekin (Getxoko Turismo Bulegoak bultzatutakoarekin) bat egin beharko dute.

Dirulaguntza-ildo honen ondorioetarako, turismo-jarduera erregularizat joko da honako betekizun hauek betetzen dituen:

1. Proposatutako jarduerak gutxienez 6 zerbitzu egiteko planifikatuta egon behar du, aldeztu erreserbarik egin gabe edo egiteko gutxieneko pertsona-taldea behar izan gabe. Batera ez doazen hainbat pertsonak banaka kontratatu daitezkeen jarduerak izango dira, hau da, ez dira izango kontratatzen dituen pertsonaren edo taldearen neurria egindako jarduerak.
2. Jarduera erregularitasun eta/edo maiztasun sistematikoarekin planifikatu beharko da, hura sustatzen eta zabaltzen lagundu dezan (adibidez: bisita gidatua larunbat guztietan, uztailetik irailera).
3. Planifikatutako jarduera egiteko ez da gutxieneko talde bat egon beharko; hau da, pertsona bakarra badago ere egin ahalko da.

Betekizun horiek guztiak eskatzaile bakoitzak bete beharko ditu banaka, gauzatu beharreko proposamenean; hots, turismo-izaerako zenbait enpresek edo profesionalek proposamen bat aurkezten badute beste batzuekin lankidetzan, aztertuko da ea eskatzaile bakoitzak egin beharreko jarduerak betekizun horiek betetzen ote dituen.



<p>Diruz lagundu daitezkeen gastuak</p>	<p>Honako gastu hauek lagundu ahalko dira diruz:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Dirulaguntzaren xede den jardueran zuzenean jarduten duten langileak (autonomoak edo soldatapekoak): Zerbitzua edo jarduera egikaritzen benetan egondako ordu-kopurua zenbatuko da, bai eta inolako bezerorik ez egoteagatik egin ez diren baina programatuta egon diren jardueren ordu-kopurua ere; jarduera edo zerbitzu bakoitzagatik gehienez 70 ordu egotzi ahal izango dira (guztizko kostuaren gaineko ehuneko jakin bateko mugarik gabe). Zerbitzu edo jarduera bakoitzagatik egotzi ahal izango den gehieneko kostua 35 eurokoa izango da orduko. Halaber, benetan lan egindako orduetan sartuko da jarduera bakoitzaren amaiera-orduko edo irteera-orduko aurretiko eta ondorengo 30 minutuak. Horrez gain, egotzi ahal izango da zabalkunde- edo sustapen-kanpainen edukiak sortzeko, erreserbak izapidetzeko edo zerbitzua behar bezala abian jartzeko beharrezkoak diren beste lan batzuetan emandako ordu gehigarrien % 10.b) Publizitatea eta komunikazioac) Beste zerbitzu profesional batzuk.d) Aintzat hartu ahalko dira diruz lagundutako jardueri zuzenean lotuta dauden beste gastu batzuk. <p>Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko: jarduera egiteko beharrezkoak diren ibilgailuak, lokalak edo beste batzuk eskuratu, alokatu eta/edo amortizazeagatik sortutakoak, ezta koktelak, lunchak eta/edo jardueren zerbitzu osagarriak antolatzeagatik sortutakoak ere. Pantalana erabiltzeagatik kostuei dagokienez, soilik hartuko da gastutzat turismo-jarduera erregularrari dagokion zati proportzionala, hau da, diruz lagundutako jarduera programatuta dagoen egunetan pantalana erabiltzeagatik kostua. Zeharkako gainerako kostuak ezingo dira diruz lagundu, ezta finantza-gastuak ere.</p>
<p>Zenbatekoa</p>	<p>Enpresa bakoitzak 7.000 euroko dirulaguntza jaso ahal izango du gehienez. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuari dirulaguntzaren gehieneko ehuneko jakin bat aplikatuko zaio, eta aipatutako 7.000 euroko muga. Horrez gain, dirulaguntza guztiak aintzat hartuta, ezingo da gainfinantzaketarik egon.</p>
<p>Bateragarritasuna</p>	<p>Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuetatik datozen beste laguntza batzuekin, salbu eta Getxoko Udaletik datozenekin eta kontzeptu berberetan eman direnekin; nolahi ere, ordaindu beharreko zenbatekoa, beste laguntza batzuekin batera, ez da inola ere izango diruz lagundutako ekintzen guztizko kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzekotan, murriztuko da Getxoko Udalak eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa.</p>



<p>Betebeharrak</p>	<p>Laguntza horien onuradun diren pertsona eta erakundeek zenbait betebeharrak bete beharko dituzte, bat etorri Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 14. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak 10.2. artikuluan ezarritakoarekin. Horrez gain, honako betebeharrak izango dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Ebazpena eragin zuten betekizunei eta inguruabarrei lotuta gertatzen diren aldaketak jakinaraztea. b) Udalaren oniritzia eskatzea, baldin eta ez bada aurkeztutako aurrekontu osoa egikarrituko edo aurkeztutako proiektuari dagokionez aldaketaren bat egin nahi bada. Eskaera horretarako epemuga 2025ko azaroaren 30a izango da. c) 2. ildorako soilik: Proiekturen bateko jarduera edo ekintza batek komunikazio-jardueren beharra badauka (euskarri inprimatuak, elektronikoak, ikus-entzunezkoak edo beste edozein motatakoak), euskarri horietan derrigorrez agertu beharko da: <ol style="list-style-type: none"> 1.- ANTOLATZAILEA: Jarduera, ekitaldia edo ekintza antolatu duen erakundearen identifikazioa. 2.- DIRULAGUNTZAILEA: Ekonomia Sustapena – Getxoko Udala eta/edo Ekonomia Sustapenaren eta dirulaguntzaren bat eman duen beste edozein erakunderen logotipoa. 3.- Kartelak: Turismo Arloarekin adostu beharko da zein hizkuntza erabiliko diren. Gutxienez bi hizkuntzatan (gaztelania eta euskara). 4.- Jardueraren testuan "Getxo" berba adieraziko da; izan ere, argi geratu behar da jarduera Getxo udalerrian egingo dela. 5.- SARE SOZIALAK: jarduera edo proiektua sare sozialetan zabaltzean: <ul style="list-style-type: none"> - Erabili hastag #visitgetxo #getxoturismo - Twitterren, LinkedIn Instagramen eta Facebooken honako hauek aipatzea: @getxolan (Getxoko Udaleko Ekonomia Sustatzeko Arloa) eta @GetxoUdala (Getxoko Udala) - Instagramen eta Facebooken honako hauek aipatzea: @VisitGetxo (Turismo Getxo) eta @GetxoUdala (Getxoko Udala) - Beste sare sozial batzuk erabili hashtag #visitgetxo #getxoturismo <p>Nolanahi ere, jardueren euskarri grafikoei Ekonomia Sustapenaren oniritzia eduki beharko dute.</p>
<p>Eskaerak aurkeztea</p>	<p>Laguntzen eskaerak telematikoki izapidetuko dira, honako webgune honen bidez: www.getxo.eus/oa</p> <p>Eskaerak egiteko epea: martxoaren 11tik apirilaren 10era</p>
<p>Ordaintzeko modua</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Zenbatekoaren % 75 ebazpena eman ondoren. 2. Gainerako % 25a ezarritako betekizunak bete izana justifikatu eta egiaztatu ondoren.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Justifikazioa	<p>Diruz lagundutako jarduera amaitu eta 45 egun baliodun igaro baino lehen aurkeztu beharko da justifikazioa, honako kasu hauetan izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none">• Abenduan egiten direnak, zeinak gehienez deialdiaren hurrengo urteko urtarrileko azken egunean justifikatu ahalko baitira.• Udalaren oniritziarekin abenduaren 31tik aurrera egiten direnak, zeinak gehienez deialdiaren hurrengo urteko otsaileko azken egunean justifikatu ahalko baitira.
➤ Informazio gehiago hemen:	<ul style="list-style-type: none">➤ Getxolan. Getxo Elkartegia. Ogoño kalea 1. Getxo (Areeta). Telefono-zenbakia: 94 466 01 40.➤ Helbide elektronikoa: getxolan@getxo.eus➤ Webgunea: http://www.getxo.eus/promocion-economica➤ Deialdia: BAO 47 zk., 2025/03/10